



# NAFARROAKO PARLAMENTUKO

## ALDIZKARI OFIZIALA

---

VI. legegintzaldia

Iruña, 2005eko apirilaren 21a

36. ZK.

---

### A U R K I B I D E A

#### G SAILA:

##### **Txostenak, deialdiak eta Parlamentuko informazioa:**

- Burlatako Udalari buruzko fiskalizazio txostena, 2003ko ekitaldikoa, Comptos Ganberak egina (2. or.).
- Barañaingo Udalari buruzko fiskalizazio txostena, 2003ko ekitaldikoa, Comptos Ganberak egina (7. or.).
- Tuterako Udalari buruzko fiskalizazio txostena, 2003ko ekitaldikoa, Comptos Ganberak egina (13. or.).
- Corellako Udalari buruzko fiskalizazio txostena, 2003ko ekitaldikoa, Comptos Ganberak egina (18. or.).

**G saila:**  
**TXOSTENAK, DEIALDIAK ETA PARLAMENTUKO INFORMAZIOA**

## **Burlatako Udalari buruzko fiskalizazio txostena, 2003ko ekitaldikoa, Comptos Ganberak egina.**

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2005eko otsailaren 7an eginiko bilkuran, erabaki zuen Comptos Ganberak Burlatako Udalari buruz egin-dako fiskalizazio txostena, 2003ko ekitaldikoa, argitara dadila agintzea.

Iruñean, 2005eko otsailaren 9an

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

### **Burlatako Udalari buruzko fiskalizazio txostena, 2003ko ekitaldikoa, Comptos Ganberak egina**

#### **AURKIBIDEA**

I. Sarrera (2. or.).

II. Helburua (3. or.).

III. Norainokoa eta mugak (3. or.).

IV. Iritzia (3. or.).

IV.1. 2003ko aurrekontu bateratuaren likidazioa (4. or.).

IV.2. 2003ko abenduaren 31ko ondare-egoeraren agerpena (4. or.).

IV.3. Legezketasuna (4. or.).

IV.4. 2003ko abenduaren 31ko finantza-egoera (4. or.).

IV.5. Informazio osagarria eta azalpen oharrrak (4. or.).

IV.6. 2002ko txostenaren gomendioen jarraipena (4. or.).

IV.7. Ondorio orokorra (4. or.).

V. Iruzkina, ondorioak eta gomendioak (5. or.).

V.1. Administrazio-kontratazioa (5. or.).

V.2. Bestelako kudeaketa-gomendioak (5. or.).

V.3. Gorabeherak (6. or.).

Eranskina. 2003ko finantzen egoera-orri bateratuen oroit-idazkia.

(Oharra: aipatu eranskina foru parlamentarien eskura dago Legebiltzarreko Zerbitzu Orokorretako bulegoetan eta ondoko webgunean:

[www.cfnavarra.es/camara.comptos](http://www.cfnavarra.es/camara.comptos)).

#### **I. SARRERA**

Burlatako Udalak 17.964 biztanle ditu eta, bere erakunde autonomoekin batera, hauexek ditu zifra adierazgarrienak 2003ko abenduaren 31n:

Entitatea	Aitorturiko betebeharrak	Aitorturiko eskubideak	Langileak 2003-12-31n
Udala	10.849.636,06	10.216.108,38	200
Kirol Patronatua	1.656.395,54	1.685.306,80	32
Kultura Patronatua	397.649,88	396.866,06	5
Musika Patronatua	657.499,61	655.959,43	29
<b>Guztira</b>	<b>12.656.547,01</b>	<b>12.049.606,59</b>	<b>266</b>

Oharra: Guztizkoa bateratua da; hori dela eta, ez dator bat banakako exekuzioen baturarekin.

Udala sarturik dago Iruñerriko Mankomunitatean, eta haren bidez ematen ditu uraren ziklo integralaren zerbitzuak, hiri hondakin solidoen kudeaketa- eta tratamendu-zerbitzuak eta eskualdeko hiri-garraiokoak.

Horrez gain, Etxebizitzak eta Eraikinak Zaharberitzeko Eskualdeko Bulegoan hartzen du parte, eta halaber, Nafarroako Udal Informatikaren Elkartean ere.

## II. HELBURUA

Nafarroako toki administrazioari buruzko uztailaren 2ko 6/1990 Foru Legeari, Nafarroako toki ogasunei buruzko martxoaren 10eko 2/1995 Foru Legeari eta Comptos Ganberari buruzko abenduaren 20ko 19/1984 Foru Legeari jarraituz, fiskalizatu egin ditugu bai Burlatako Udaleko kudeaketa ekonomiko eta finantzarioa bai udal horren nahiz haren erakunde autonomoen 2002ko ekitaldiko gastu eta dirusarreraren aurrekontuen betetzea.

Toki entitateari aplikatu beharreko araubide juridikoa osatzen dute, funtsean, lehen aipaturiko lege horiek, Toki araubidearen oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legeak, Nafarroako administrazio publikoen zerbitzuko langileen estatutuak eta administrazio-kontratazioa nahiz hirigintza-kudeaketa eraentzen dituzten arauak; baita Nafarroako toki enteei modu orokorrean aplikatu beharreko gainontzeko arauak ere.

Kontabilitatearen eta aurrekontuen arloan, araubide juridikoa ezartzen dutenak 1998ko irailaren 21eko 270, 271 eta 272 foru dekretuak dira, zeinak aurrekontu eta gastu publikoari, aurrekontu-egiturari eta Nafarroako toki administratziarako kontabilitateari buruzkoak baitira.

Txostenak honako puntu hauei buruzko gure iritzia agertzea du helburu:

a) Burlatako Udalaren eta haren erakunde autonomoen 2003ko ekitaldiko aurrekontuaren garapena eta betetzea.

b) 2003ko abenduaren 31ko ondare-egoeraren agerpena, aplikatzekoak diren kontabilitate-printzipioei jarraituz.

c) Jarduera ekonomiko-finantzarioa legezkotasun-printzipioari lotua egon ote den.

d) Udalaren eta haren erakunde autonomoen 2003ko abenduaren 31ko finantza-egoera.

e) Burlatako Udalaren finantzen egoera-orri bateratuen informazio osagarrian eta azalpen oharretan ageri diren datuen eta iruzkinen arrazoizkotasuna eta koherentzia.

f) Comptos Ganberak bere azken fiskalizazio-txostenean eginiko gomendioen betetze-maila 2002ko ekitaldiari buruzkoa da.

## III. NORAINOKOA ETA MUGAK

Comptos Ganberak, bere jarduketa programarekin bat, Burlatako Udalaren (aurrerantzean "udala" deituko diogu) eta haren erakunde autonomoen, Kirol Patronatuaren, Kultura Patronatuaren eta Musika Patronatuaren finantzen egoera-orrien fiskalizazioa egin du; egoera-orri horietan sarturik daude 2003ko ekitaldiko aurrekontuaren likidazioaren egoera-orria eta aurrekontuen emaitza eta 2003ko abenduaren 31ko egoeraren balantzea, guztiak bateratuak, bai eta 2003ko ekitaldiko finantzen egoera-orri horien informazio osagarria eta azalpen oharra ere.

Udalak kontabilitate publikoari buruzko plan orokorra ezarrita dauka. Erakunde autonomoek ere badute kontabilitate orokorra.

Beraz, eginiko azterketak haxe izan du arretagai: dirusarrera eta gastuei buruzko kapitulu ekonomikoak eta ondare-masak berrikustea, antolamenduari, kontabilitateari eta barne-kontrolari dagozkien hainbat puntu aztertzea.

Lana burutu da Espainiako Estatuko Kanpo Kontroleko Organo Publikoak Koordinatzeko Batzordeak onetsitako fiskalizazio printzipioei eta arauari jarraituz eta aurreko urteetako lanetan agerian utzi diren baldintzen eta arazoan arabera beharrezkotzat jo ditugun proba guztiak aplikatuz.

Txostenak biltzen ditu udalaren antolamendua, barne kontrola, eraginkortasuna eta efizientzia hobetzeko beharrezkotzat jo ditugun iruzkin eta gomendioak.

Kanpoko aholkulari guztiak ez dutenez zirkularraren erantzuna igorri, ezin ditugu ebaluatu izan daitezkeen inguruabar guztiak.

Azterketa-lana 2004ko ekainean hasi zen eta urrian amaitu.

Udaleko eta haren erakunde autonomoetako langileei eskerrak ematen dizkiegu lan hau egiteko eman diguten laguntzarengatik.

## IV. IRITZIA

Burururiko fiskalizazioaren barruan, Burlatako Udalaren eta haren erakunde autonomoen finantzen egoera-orri bateratuak aztertu ditugu, 2003ko abenduaren 31n amaituriko urte osoko ekitaldikoak, zeinak udalaren ardurapean egin baitira.

Gure berrikuspenean, Espainiako Estatuko Kanpo Kontroleko Organo Publikoak Koordinatze-ko Batzordeak sektore publikoaren auditoretzarako onetsiriko arau eta prozedurak aplikatu ditugu.

Egindako azterketaren emaitza gisa, ondoko iritzia eman behar dugu:

#### IV.1. 2003ko AURREKONTU BATERATUAREN LIKIDAZIOA

2003ko ekitaldiko aurrekontua urrian onetsi zuen udalbatza berriak. Ordura arte 2002ko aurrekontu luzatua bete zen.

Erantsi dugun 2003ko aurrekontu bateratuaren likidazioaren egoera-orriak eta oharrek behar bezala agertzen dute, garrantzizkoak diren alderdi guztiei dagokienez, ekitaldiko jarduera eta 2003ko abenduaren 31ko aurrekontu-egoera.

#### IV.2. 2003ko ABENDUAREN 31ko ONDARE-EGOERAREN AGERPENA

Erantsitako 2003ko abenduaren 31ko egoera-balantze bateratuak eta oharrek behar bezala agertzen dute udalaren finantza eta ondare egoera, salbu eta ondasunen (ibilgetua) inbentarioaren kasuan, gaurkoturik ez dagoelako –1995ekoa da–.

#### IV.3. LEGEZKOTASUNA

Oro har, udalaren jarduera ekonomiko-finantzarioa legezketasun-printzipioari jarraituz egin da.

#### IV.4. 2003ko ABENDUAREN 31ko FINANTZA-EGOERA

Hasierako aurrekontu bateratua: 12.085.928 euro. Behin betikoa: 18.329.797 euro. Gastuen betetze-maila: ehuneko 69. Dirusarreren betetze-maila: ehuneko 66. Portzentaje horiek aurreko ekitaldikoak baino txikiagoak dira: ehuneko 71 eta ehuneko 76, hurrenez hurren.

Zuzeneko zergen betetzea ehuneko 98koa izan da, eta zeharkakoena ehuneko 74koa. Bi kapitulu horiek ekitaldiko dirusarreren ehuneko 26 egiten dute. Baliabide bateratuen ehuneko 53 transferentzietatik datoz.

Ekitaldiaren amaieran 606.940 euroko defizita izan da, eta aurrekontuko emaitza doitua 75.922 euroko superabita izan da, aurreko ekitaldiko diruzaintzako gerakina oinarri hartuta finantzatzutako betebeharrak eta finantzaketaren desbideraketak.

2003ko abenduaren 31n, zorra 9.546.131 eurokoa zen, eta ekitaldi horretan zehar ez da mailegu berririk sinatu. Zorpetze maila ehuneko 13,7koa

da, eta gainditzen du ekitaldi honetan zorpetze muga, ehuneko 11,9koa; beraz, aurrezpen garbia negatiboa da –ehuneko 1,8–, funtzionamendu gastuen igoera dirusarrera arruntena baino handiagoa izan delako, finantza gastuen gehikuntzarekin batera, maileguen korrituak eta amortizazioa direla eta. Datu horiek zalantza adierazten dute udalak zorrari aurre egiteko baliabideak sortzeko gai izanen ote den. Azken hiru ekitaldietan aurrezpen garbia ez da ehuneko 2tik gorakoa izan, eta horrek erakusten du udalaren finantza tartea urria dela. Diruzaintza-gerakin bateratua 1.940.358 eurokoa da.

#### IV.5. INFORMAZIO OSAGARRIA ETA AZALPEN OHARRAK

Finantzen egoera-orri bateratuen informazio osagarrian eta azalpen oharretan beharrezkoa den informazioa dago haiek ongi interpretatu eta ulertzeko. Barne hartzen du udal arloetan baliabide publikoak erabiltzean ageri den eraginkortasun, efizientzia eta ekonomia mailaz, kudeaketako hainbat adierazleren bidez.

#### IV.6. 2002ko TXOSTENAREN GOMENDIOEN JARRAIPENA.

Oro har, esan daiteke 2002ko ekitaldiari buruzko txosteneko administrazio- eta kontabilitate-izarrerako gomendio nagusiak aintzat hartuak izan direla. Dena den, oraindik aintzat hartu beharrekoak diren gomendioak txosten honetako V. puntuan jasota daude.

#### IV.7. ONDORIO OROKORRA

Laburtuz, eta ondorio nagusi gisa, esan genezake udalak modu egokian kudeatzen dituela bere aurrekontuak. Hala ere, haren finantza-egoerak zor-bolumen handia du bereizgarri. Hona lanetik ateratako gomendioak:

- *Aurrekontua garaiz onestea, kudeaketarako tresna gisa erabili ahal izateko.*

- *Udal inbentarioa etengabe gaurkotzeko eta hura ibilgetuaren kontuekin –behin garbituak– konektatzeko bidea emanen duten prozedurak ezartzea.*

- *Finantza bideragarritasunari buruzko plan bat egitea hurrengo ekitaldietarako, gastu arrunta kontrolatzeko eta zorpetze maila gainditzea saihesteko.*

- *Erakunde autonomoei dagokienez, udalak jarduera kontrolatu eta babesteko tresna eraginkorak diseinatu behar dira.*

## V. IRUZKINAK, ONDORIOAK ETA GOMENDIOAK

### V.1. ADMINISTRAZIO-KONTRATAZIOA

Atal honetan xehekaturik agertuko ditugu, alde batetik, hornidurak erosi eta zerbitzuak emateari buruzko alderdiak eta, bestalde, inbertsioak.

#### V.1.1. Hornidurak erosi eta zerbitzuak ematea

Jubilatuen udal elkarteko ile-apaindegiaren zerbitzua zeharka kudeatzeko kontratua berraztertu dugu; kontratua prentsan argitaratutako prozedura negoziatuaren bidez adjudikatu zen. Gure ondorioa da aplikatzekoa den araudiaren arabera tramitatu dela, salbu alderdi batean, alegia kontu-hariztailezaren txostenik ez dagoela.

Comptos Ganbera honen gomendioei jarraikiz, erosketak kudeatzeko prozedura normalizatu bat

aplikatu da; nolana ere, aurrekontuen kapituluaren azterketan agerian geratu da udalak eta erakunde autonomoek ez dutela batzuetan formalizatzen aldizkako zerbitzuen kontratazioa. Hau guztia kontuan hartuz, hauxe gomendatzen dugu:

- *Kontratazioari buruzko araudia aplikatzea, eta besterekin dauden harreman guztiak kontratuen bidez formalizatzea, gastua hobeki kontrolatzeko..*

#### V.1.2 Inbertsioak

Kapituluan aitorturiko gastua urte anitzeko kontratuen ingurukoa da, gehienbat aurreko ekitaldietan adjudikatuak, aurreko ekitaldiko txostenean aztertu zirenak.

Kontratazio espediente hauek berraztertu dira, 2003ko ekitaldian adjudikatuen arteko esanguratsuenak:

	Mota	Adjudikazioa	Lizitazioa	Zenbatekoa esleipena
Kultur etxeko harmailen eta butaken hornidura	Hornidura	Lehiaketa irekia	205.000	172.500
ORVEren erreforma	Obra	Negoziatua, prentsan iragarrita	53.044	53.044
Udaletxearen proiektua	Laguntza	Ideien lehiaketa		295.854
N-12 eraistea	Obra	Negoziatua, prentsan iragarrita	91.915	44.303

Egindako azterketaren ondorioa da kontratazioa kontratazio publikoaren gaineko araudian ezarritako printzipio eta tramiteak betez egin dela, baina espediente batzuetan falta dela bertan egiaztatu behar diren ekitaldietakoren bat, zehazki kontu-hariztailezaren txostena edo adjudikazioaren argitarapena. Hori dela eta, hauxe da gure gomendioa:

- *Espedienteak tramitatzea halako moduan non idatziz geratuko diren beharrezkoak diren eginbide guztiak.*

### V.2. BESTELAKO KUDEAKETA-GOMENDIOAK

Jarraian azaltzen dira, kudeaketa-arlo garrantzitsuenetako bakoitzerako, gure aburuz udalak gauzatu behar dituen gomendio nagusiak, bere antolaketa-sistemak, prozedurak, kontabilitatea eta barne-kontrola hobetzeko.

#### V.2.1. Antolaketa orokorra

- *Barne araubideari buruzko erregelamendu bat egin behar da. Hartan eskumenak zehaztu eta udalaren organo exekutiboaren artean banatu beharko dira. Erakunde autonomoekiko harremanak ere zehaztuko dira.*

- *Oinarrizko kudeaketa-prozedurak idatziz taxutzea, eta horien exekuzio-fase bakoitzaren arduradunak identifikatzea eta esleitzea.*

- *Udalak bere erakunde autonomoen ekintzen gainean egin behar dituen kontrol eta zaintza lanak behar bezala bermatuko dituzten prozedurak taxutu behar dira.*

- *Gomendatzen diogu udalari ez dezan erabil aurrekontu-luzapenik eta epean onets dezan aurrekontua.*

### **V.2.2 Inbentarioa-Ibilgetua**

- *Udal ondasunak –jabari publikokoak, ondarekoak eta herri-ondasunak– eskrituretan jaso eta erregistratzeko prozesua osatzea.*

- *Udal inbentarioa etengabe gaurkotzeko eta hura ibilgetuarekin konektatzeko bidea emanen duten prozedurak diseinatu eta aplikatzea, kontu hauei aplikatzekoak zaizkien kontabilitateko irizpideen arabera.*

- *Ibilgetua osatzen duten kontabilitate-saldoak aztertu eta garbitzea, Udalaren ondasunak ongi isla ditzaten.*

### **V.2.3. Langileak**

- *Aztertu ea Kontabilitate Departamentuari esleituriko giza baliabideak nahikoak ote diren gaur egungo lan-kargari aurre egiteko.*

### **V.2.4. Tributu bidezko dirusarrerak, tasak eta prezio publikoak**

- *Tasa eta prezio publikoekin ordaintzen diren kostuei buruzko azterketak aldizka egitea.*

### **V.2.5. Alderdi orokorrak**

- *Gastuak eta dirusarrerak epigrafe egokien barrenean kontabilizatzea, haien izaera ekonomikoarekin bat eta sortzapenaren printzipioa behar bezala aplikatuz.*

- *Udalaren aurrekontuak egin eta onestea legedian ezarritako epeetan.*

### **V.3. GORABEHERAK**

Udaleko abokatuetako baten erantzunaren ondorioz, ekitaldia ixtean ebazteko zegoen udalean ezintasunagatik erretiroa hartu zuten langile batzuek aurkeztutako demanda bat, langileen hitzarmenean aurreikusitako prestazio bat ez beteagatik, demanda aurkezleak horretarako aseguru polizatik kanpo utzi baitzituzten. Udalak, berriz aseguru konpainiaren kontrako erreklamazio bat aurkeztu du, auzitegitik kanpo, 240.405 eurokoa. 2004. urtean, akordio transakzional bat lortu zen, eta udalak eta aseguru enpresak ordainketa zenbait zatitan egitea adostu zuten.

Aipatzekoa da halaber indarra duela oraindik udaleko bi funtzionariori kalteordaina emateko erabakia, 2004. urtera arte bakoitzari 1.502,53 euro hilerok.

Auditore Francisco José Etayo Salazar jauna izan da lan honen arduraduna, eta hark proposatuta eman da txosten hau, indarreko araudiak ezarritako izapideak bete eta gero.

Iruñean, 2005eko urtarrilaren 28an

Lehendakaria: Luis Muñoz Garde

## Barañaingo Udalari buruzko fiskalizazio txostena, 2003ko ekitaldikoa, Comptos Ganberak egina.

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2005eko otsailaren 14an eginiko bilkuran, erabaki zuen Comptos Ganberak Barañaingo Udalari buruz egindako fiskalizazio txostena, 2003ko ekitaldikoa, argitara dadila agintzea.

Iruñean, 2005eko otsailaren 16an

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

## Barañaingo Udalari buruzko fiskalizazio txostena, 2003ko ekitaldikoa, Comptos Ganberak egina

### AURKIBIDEA

- I. Sarrera (7. or.).
  - II. Helburua (8. or.).
  - III. Norainokoa (8. or.).
  - IV. Iritzia (8. or.).
    - IV.1. 2003ko aurrekontu bateratuaren likidazioa (8. or.).
    - IV.2. 2003ko abenduaren 31ko ondare-egoeraren agerpena (9. or.).
    - IV.3. Legezketasuna (9. or.).
    - IV.4. 2003ko abenduaren 31ko egoera ekonomiko eta finantzarioa (9. or.).
    - IV.5. Informazio osagarria eta azalpen oharra (9. or.).
    - IV.6. 2002ko txostenaren gomendioen jarraipena (9. or.).
    - IV.7. Ondorio orokorra (9. or.).
  - V. Iruzkina, ondorioak eta gomendioak (10. or.).
    - V.1. Administrazio-kontratazioa (10. or.).
    - V.2. Bestelako kudeaketa-gomendioak (10. or.).
    - V.3. Gorabeherak eta ondorengo gertaerak (11. or.).
  - VI. Barañaingo Auditorioaren fundazioa (11. or.).
- Eranskina.- 2003ko abenduaren 31ko finantzen egoera-orri bateratuak.
- (Oharra: aipatu eranskina foru parlamentarien eskura dago Legebiltzarreko Zerbitzu Orokorretako bulegoetan eta ondoko webgunean:  
[www.cfnavarra.es/camara.comptos](http://www.cfnavarra.es/camara.comptos)).

### I. SARRERA

Barañaingo Udalak 22.237 biztanle ditu eta, bere erakunde autonomoekin batera, hauexek ditu zifra adierazgarrienak 2003ko abenduaren 31n:

Entitatea	Aitorturiko betebeharrak	Aitorturiko eskubideak	Langileak Langileak 2003-12-31n
Udala	13.908.512	10.438.754	145
Lagunak udal zerbitzua	1.373.923	1.122.687	16
"Luis Morondo" Musika Eskola	724.521	746.140	25
Guztira	16.006.956	12.307.581	186

Udalak, 2003ko urtarrilaren 17an, eratu eta bere babespean ezarri zuen Barañaingo Auditorioaren Fundazioa; haren xedea da Barañaingo Arte Eszenikoen Zentroa kudeatu eta administratzea. Lehendabiziko ekitaldian 426.495 euroko dirusarrerak eta 451.849 euroko gastuak izan ditu.

Udala sarturik dago Iruñerriko Mankomunitatean, eta haren bidez ematen ditu uraren ziklo integralaren zerbitzuak, hiri hondakin solidoen kudeaketa- eta tratamendu-zerbitzuak eta eskualdeko hiri-garraiokoak.

## II. HELBURUA

Nafarroako Toki Administrazioari buruzko uztailaren 2ko 6/1990 Foru Legeari, Nafarroako Toki Ogasunei buruzko martxoaren 10eko 2/1995 Foru Legeari eta Comptos Ganbera arautzen duen abenduaren 20ko 10/1984 Foru Legeari jarraituz, Barañaingo Udalaren eta haren erakunde autonomoen 2003ko ekitaldiko kudeaketa ekonomiko-finantzarioa eta gastuen eta dirusarreraren aurrekontuen betetzea fiskalizatu ditugu.

Fiskalizaturiko toki entitateari aplikatzekoa den araubide juridikoa, funtsean, honako hauek osatzen dute: arestian aipatutakoak eta Toki Araubidearen Oinarriak arautzeko apirilaren 2ko 7/1985 Legea, Nafarroako Administrazio Publikoen zerbitzuko Langileen Estatutua, hirigintza-kudeaketa eta administrazio-kontratazioa arautzen duen araudia eta Nafarroako toki entitateei aplikatzekoa den gainontzeko araudia.

Kontabilitate eta aurrekontu gaietako araubide juridikoa Nafarroako toki administrazioarentzako aurrekontu eta gastu publikoari, aurrekontu egiturari eta kontabilitateari buruzko 1998ko irailaren 21eko 270, 271 eta 272 foru dekretuetan ezartzen da.

Txostenak honako puntu hauei buruzko gure iritzia agertzea du helburu:

a) Barañaingo Udalaren eta haren erakunde autonomoen 2003ko ekitaldiko aurrekontuaren garapena eta betetzea.

b) 2003ko abenduaren 31ko ondare-egoeraren agerpena, aplikatzekoak diren kontabilitate-printzipioei jarraituz.

c) Jarduera ekonomiko-finantzarioa legezkotasun-printzipioari lotua egon ote den.

d) Udalaren eta haren erakunde autonomoen 2003ko abenduaren 31ko finantza-egoera.

e) Barañaingo Udalaren finantzen egoera-orri bateratuen informazio osagarrian eta azalpen oharretan ageri diren datuen eta iruzkinen arrazoiztasuna eta koherentzia.

f) Egin zuen azken fiskalizazio-txostenean, zeina 2002ko ekitaldiari buruzkoa baita, Comptos Ganbera honek eman zituen gomendioak noraino bete diren.

## III. NORAINOKOA

Comptos Ganberak, bere jarduketa programarekin bat, Barañaingo Udalaren (aurrerantzean, "udala") eta haren erakunde autonomoen –Lagunak udal zerbitzua eta Luis Morondo Musika Esko-

la– finantzen egoera-orri bateratuen fiskalizazioa egin du; egoera-orri horietan sarturik daude 2003ko ekitaldiko aurrekontuaren likidazioaren egoera-orria, aurrekontuen emaitza eta diruzaintzako gerakina, eta 2003ko abenduaren 31ko egoeraren balantzea, guztiak bateratuak, bai eta 2003ko ekitaldiko finantzen egoera-orri horien informazio osagarria eta azalpen oharrak ere.

Udalak kontabilitate publikoari buruzko plan orokorra ezarrita dauka. Erakunde autonomoek ere badute kontabilitate orokorra, udalean ezarritako kontabilitate-ereduaren aplikazio sinplifikatu bati esker.

Beraz, eginiko lanak hauxe izan du arretagai: dirusarrera eta gastuei buruzko kapitulu ekonomikoak eta ondare-masak berrikustea, eta antolamenduari, kontabilitateari eta barne-kontrolari dagozkien zenbait puntu aztertzea.

Lana burutu da Espainiako Estatuko Kanpo Kontrolerako Organo Publikoak Koordinatzeko Batzordeak onetsitako fiskalizazio printzipioei eta arauari jarraituz eta aurreko urteetako lanetan agerian utzi diren baldintzen eta arazoaren arabera beharrezkotzat jo ditugun proba guztiak aplikatuz.

Txostenak biltzen ditu udalaren antolamendua, barne kontrola, eraginkortasuna eta efizientzia hobetzeko beharrezkotzat jo ditugun iruzkin eta gomendioak.

Azterketa-lana 2004ko ekainean hasi eta urrian amaitu zen.

Udaleko eta haren erakunde autonomoetako langileei eskerrak ematen dizkiegu lan hau egiteko eman diguten laguntzarengatik.

## IV. IRITZIA

Buruturiko fiskalizazioaren barruan, Barañaingo Udalaren eta haren erakunde autonomoen finantzen egoera-orri bateratuak, 2003ko abenduaren 31n amaituriko ekitaldikoak aztertu ditugu. Egoera orri horiek udalaren ardurapean egin dira.

Berrikuspena egitean, Espainiako Estatuko Kanpo Kontrolerako Organo Publikoak Koordinatzeko Batzordeak onetsitako sektore publikoaren auditoria arau eta prozedurak aplikatu dira.

Egindako azterketaren emaitza gisa, ondoko iritzia eman behar dugu:

### IV.1. 2003ko AURREKONTU BATERATUAREN LIKIDAZIOA

Erantsi dugun 2003ko aurrekontu bateratuaren likidazioaren egoera-orriak eta oharrek behar



bezala agertzen dute, garrantzizkoak diren alderdi guztiei dagokienez, ekitaldiko jarduera eta 2003ko abenduaren 31ko aurrekontu-egoera.

#### IV.2. 2003ko ABENDUAREN 31ko ONDARE-EGOERAREN AGERPENA

Erantsirik dagoen 2003ko abenduaren 31ko egoera-balantze bateratuak eta oharrek behar bezala agertzen dute udalaren finantza eta ondare-egoera, salbu eta ondasunen (ibilgetua) inbentarioaren kasuan, gaurkoturik ez dagoelako –1992koa da–.

#### IV.3. LEGEZKOTASUNA

Oro har, udalaren jarduera ekonomiko-finantzarioa legezketasun-printzipioari jarraituz egin da.

#### IV.4. 2003ko ABENDUAREN 31ko EGOERA EKONOMIKO ETA FINANTZARIOA

Behin betiko aurrekontu bateratua 24.770.313 eurokoa da, eta betetakoa 16.006.956 eurokoa gastuetan eta 12.307.581 eurokoa dirusarreretan; gastuen betetze maila, berriz, ehuneko 65ekoa da gastuetan eta ehuneko 50ekoa dirusarreretan.

Betetze maila apalaren arrazoia da aurrekontuan sarturiko hainbat inbertsio bete gabe geratu direla, kapitulu horretan betetze maila ehuneko 40koa izan baita, eta horrekin batera kapital transferentzien bidezko dirusarreretan ere betetzea txikia izan, ehuneko 29koa alegia. Inbertsio errealean bidezko dirusarreraren kapitulua ez da bete.

2003ko ekitaldian transferentziek udalaren dirusarreraren ehuneko 48 egin dute eta zergek ehuneko 24. Zuzeneko zergen betetze maila ehuneko 111koa izan da eta zeharkakoena (EIOZ) ehuneko 10ekoa, aurrekontuko aurreikuspena justifikatu zuten etxebizitzak ez baitira eraiki.

Ekitaldia ixtean defizita 3.699.374 eurokoa zen, eta aurrekontuko emaitza doitua 3.466.270 euroko defizita izan da.

Ekitaldi honetan ez da zorpetzerik izan, 2001az geroztik ez baitago mailegurik indarrean.

Udalaren finantza egoeraren ezaugarriak ekitaldia amaitzean honakoak dira: ehuneko 4,5eko aurrezki garbia, zorpetzerik ez, eta diruzaintzako gerakinaren jaitsiera nabarmena: 2002ko ekitaldia ixtean 4.861.661 eurokoa zen eta 2003an berriz 1.000.602 eurokoa, inbertsioak finantzatzeko erabili delako.

#### IV.5. INFORMAZIO OSAGARRIA ETA AZALPEN OHARRAK

Finantzen egoera-orri bateratuen informazio osagarrian eta azalpen oharretan beharrezkoa den informazioa dago haiek ongi interpretatu eta ulertzeko.

#### IV.6. 2002ko TXOSTENAREN GOMENDIOEN JARRAIPENA

Oro har, 2002ko ekitaldiari buruzko txosteneko administrazio- eta kontabilitate-izaerako gomendio nagusiak aintzat hartu direla esan daiteke. Hala ere, egokia da premia hauek daudela azpimarratzea:

- *Erakunde autonomoen kudeaketaren gaineko jarraipen eta kontrol prozedurak taxutu eta aplikatzea.*

- *Epe ertainera eta luzera udal finantzen egoera zein izanen den agertuko duten ekonomia- eta finantza-proiektzioko azterlanak.*

#### IV.7. ONDORIO OROKORRA

Laburtuz, eta ondorio orokor gisa, esan genezake udalak egokiro kudeatzen dituela bere aurrekontuak. Halere, gure ustez udalak gai hauek aintzat hartu beharko lituzke:

Finantzen ikuspegitik, epe ertain eta luzerako kalkuluek badirudi baliabide berekiak sortzeko ahalmena agor litekeela iragartzen dutela. Gainera, aurrekoa larriagotu egiten da planeamenduan jasotako hirigintza-aurreikuspenak ia ahiturik daudela kontuan hartuz gero. Funtsean, egoera horrek honakoak egin daitezela galdatzen du:

a) Udalaren lehentasunezko premiei eta horiek finantzatzeko bideei buruzko proiektzio ekonomiko-finantzarioak.

b) Aplikatzekoa den presio fiskalari buruzko azterlanak.

c) Zerbitzuen kostuari eta herritarrengan duen eraginari buruzko analisia.

d) Azterlanak oinarrizkoak edo nahitaezkoak ez diren zerbitzuak emateari buruzko erabakiak hartu aurretik.

Guztiaren helburua udalaren finantza-bideragarritasuna bermatzea da.

Erakunde autonomoei dagokienez, beharrezkoa da haien estatutuak osatu eta gaurkotzea, horrela haien benetako autonomia maila agertzera emateko eta udalak haien jardueraren gainean

erabiltzen dituen kontrol eta zaintza mekanismoak erakusteko.

Alabaina, ez da ahaztu behar erakunde horien eragiketak, entitate publikoak direnez gero, kontu-hartzaitza publikoari lotuak daudela; horregatik, eginkizun hori benetan burutu ahal izateko egoki diren prozedurak taxutu behar ditu udalaren kontu-hartzaitzak.

Halaber, gaur egungo kontabilitate-sistema erakunde horien kudeaketa-obligazioei egokitu ote dagoen aztertu behar da; benetako beharizanen eta kontabilitate publikoko betekizunen artean oreka aurkitzen saiatu behar da.

## V. IRUZKINAK, ONDORIOAK ETA GOMENDIOAK

### V.1. ADMINISTRAZIO-KONTRATAZIOA

Atal honetan xehekaturik agertuko ditugu, alde batetik, hornidurak erosi eta zerbitzuak emateari buruzko alderdiak eta, bestalde, inbertsioen analisia.

#### V.1.1. Homidurak erosi eta zerbitzuak ematea

Zerbitzuak kontratatzeko espediente hauek aztertu ditugu:

Kontratua	Prozedura	Lizitazioa	Adjudikazioa
Kiroldegiko garbiketa eta atezaina	Lehiaketa	116.000	115.856
Infolan enplegu sustapena	Lehiaketa	30.000	25.250

Horiek aztertuta, ondorioa da kontratua legeak eskatzen duenari jarraiki tramitatu dela, salbu eta adjudikazio hartzaileak kontratua behin betikoz ziurtatu izana espedientean ez egiaztatzeak dakarren akats formala.

Udalan prozedura normalizatua aplikatzen da erosketen kudeaketarako, eta idatziz agertzen da tramiteak eta arloak zein diren.

#### V.1.2 Inbertsioak

Inbertsio espediente hauek aztertu ditugu:

Obra	Prozedura	Lizitazioa	Adjudikazioa
Lagunak elkarteko aldagelak berritzeko proiektua	Lehiaketa	90.000	78.000
Hautzaindegia berritzeko obra	Lehiaketa	115.112	111.093
Lagunak elkarteko aldagelak handitzea	Lehiaketa	1.313.133	1.278.616
Jubilatuena elkarrean berritzea	Lehiaketa	278.816	259.301
Lagunak elkarteko patinodromoko boxak	Negoziatua, publizitatearekin	35.000	33.597

Horiek aztertuta, ondorioa da kontratazioaren gaineko araudia bete egin dela, publizitatea eta lehiaren oinarriko printzipioak errespetatuz bai eta indarra duen araudian ezarritako gainerako eskakizunak ere, hasierako jarduketari, adjudikazioari, kontratuaren formalizazioari eta betetzeari dagokienez.

### V.2. BESTELAKO KUDEAKETA-GOMENDIOAK

Jarraian azaltzen dira, kudeaketa-arlo garrantzitsuenetako bakoitzerako, Comptos Ganbera honen aburuz udalak jarraitu behar dituen gomendio nagusiak, bere antolamendu, prozedura, kontabilitate eta barne-kontrolako sistemak hobetzeko.

**V.2.1. Antolaketa orokorra**

- Barne araubideari buruzko erregelamendu bat onestea, horren bidez Udaleko organo exekutiboen eskumenak definitu eta euren artean banatzeko.

- Musika Eskolaren estatutuak udalaren egungo antolaketari eta egiazko funtzionamenduari egokitzea; batik bat udalak berak betetzen dituen kontrol eginkizunei, eskolak kudeaketa-autonomiarako duen egiazko gaitasunari eta udalaren kontuhartzailtzak duen paperari dagozkien alderdiak.

- Betebeharrak edo eskubideak eragiten dituen erakunde autonomoen egintza orok kontuhartzailtzaren edo barne kontrolaren menpe egon behar du.

- Gure gomendioa da, halaber, sailkapen egozia egitea eta sortzapenaren printzipioa aplikatzea erregistraturiko gastu eta dirusarrera guztietan.

**V.2.2 Inbentarioa-ibilgetua eta zordunak (balantzea)**

- Udal inbentarioa gaurkotzea eta onestea, 1992an eginikoa ez baitzen onetsia izan, ezta ondoren gaurkotua ere.

- Udal inbentarioa etengabe gaurkatzeko eta hura kontabilitatearekin konektatzeko bidea emanen duten prozedurak diseinatu eta aplikatzea, ibilgetuari buruzko altak eta bajak kontabilizatu eta dokumentazioa artxibatze prozedurak definituz eta ezarriz, kontu hauei aplikatzekoak zaizkien irizpideen arabera.

- Ibilgetua osatzen duten kontabilitate-saldoak eta ibilgetua eskuratzeko jasotako diru-laguntzak aztertu eta garbitzea, udalaren ondasunak ongi isla ditzaten.

- Udal ondasunen eskriturazte eta erregistratze prozesua osatzea.

- Udalaren jabetzakoak diren lokal eta etxabeen erabilgarritasuna eta errentagarritasuna aztertea.

- Balantzean kontabilizatzea biltzen zailak diren eta kobratzeko dauden eskubideei dagokien hornidura.

**V.2.3. Aurrekontuen egoera-orriak eta aldaketak**

- Dirusarrera aurrekontua errealistagoa izatea gomendatzen dugu, bereziki udala ez diren instantzien menpe egoteagatik lortzen zailak direnen

*kasuetan, dirusarreraren betetze maila apala izateak ez baitakar berarekin gastuak murriztea, eta horrekin udalaren finantza ahalmena kaltetzeko arriskua eragin dezake.*

- Kontuen Batzorde Bereziak kontu orokor bakarra lege ezarritako epean onetsi dezan ahalgintzea.

- Aurrekontu orokor bakarra eta plantilla organikoa ekitaldia hasi baino lehen onestea.

**V.2.4. Tributu bidezko dirusarrerak, tasak eta prezio publikoak**

- Ordenantzak behin betikoz onetsirik izatea aplikatu beharreko aurrekontu ekitaldiko lehen eguna baino lehen, Toki administrazioari buruzko 6/1990 Legearekin bat.

**V.3. GORABEHERAK ETA ONDORENGO GERTAERAK**

Gaur egun udala administrazioarekiko auzi prozedura batzuetan sarturik dago, eta horietatik ondorio ekonomikoak etor daitezke, prozesuaren une honetan ebaluatzen zailak.

Auzietako bat, garrantzitsua, errekurtsio bat da, Nafarroako Gobernuaren kontra jarritakoa, honek uko egin baitzion behin betikoz onesteari HAPOren S1 eta S2 sektoreen aldaketa puntuala aldatzeko behin betiko onespena; 2004ko ekitaldian haren gaineko ebazpena eman zen, eta Salak zati batean baietsi zuen, Barañaingo HAPOren aldaketa administrazioaren isilbidez egin zela deklaratu.

**VI. BARAÑAINGO AUDITORIOAREN FUNDAZIOA**

Udalak, 2003ko urtarrilaren 17an, eratu eta bere babespean ezarri zuen Barañaingo Auditorioaren Fundazioa; haren xedea da Barañaingo Arte Eszenikoen Zentroa kudeatu eta administratzea.

Horretarako, udalak fundazioaren hasierako zuzkidura jarri zuen, 150.000 eurokoa, eta Arte Eszenikoen Zentroaren eraikina eta instalazioak eta ekipoak laga zituen kosturik gabe. 2003ko ekitaldian, udalak 293.024 euro jarri zituen funtzionamendurako, baina gaizki kontabilizatu dira II. kapitulan.

2004ko abuztuaren 31n, Fundazioaren Patronatuak 2003ko ekitaldiko urteko kontu laburtuak egin zituen, bere aurreneko jarduera ekitaldiari buruzkoak.

AKTIBOA		PASIBOA	
Ibilgetua	30.934	Fundazioaren zuzkidura	150.000
		Ekitaldiko emaitza	-25.354
	<b>30.934</b>		<b>124.646</b>
Zordunak	194.284		
Diruzaintza	4.541		
<b>Aktibo zirkulatzaila</b>	<b>198.825</b>	<b>Epe laburreko hartzekodunak</b>	<b>105.113</b>
AKTIBOA	229.759	PASIBOA	229.759

Emitzen kontua

2003		2003	
<b>GASTUAK</b>		<b>DIRUSARRERAK</b>	
Kontsumoak	29.538	Dirula., dohaintzak...	293.024
Langileak	73.733	Salmentak	113.525
Ibilgetuaren amort. zuzkidura	1.942	Bestelako dirusarrerak	19.217
Bestelako gastuak	346.190		
Jarduerarako horniduren aldaketa	438		
	<b>451.841</b>		<b>425.766</b>
Diru-sarrera finantzarioak	729	Ustia ketaren emaitza negatiboak	<b>26.075</b>
Finantza-emaitza positiboak	<b>721</b>	Finantza-gastuak	8
		Ohiko jard. emaitza negatiboak	25.354
		Ekitaldiko soberakin negatiboa	25.354

Kontuak profesional independente batek aztertu zituen, eta pertsona horri eskatu zitzaion halaber beste gai batzuei buruzko bere irizpena eman zezan, hala nola fundazioen estatutuen eta legezko araudia betetzen ote den aztertzea eta 2003an eginiko kontratazio nagusiak ere.

Emandako txostenak akats batzuk aipatzen ditu –BEZaren eta sozietateen gaineko zergaren aitorpenetan, fakturretan akats formalak, gehienbat–, kontabilitateko barne kontrolerako sistema

egokia ezartzea eskatzen dutenak, ziurtatzeko eragiketa guztiak behar bezala kontabilizatzen direla eta aktiboak zainduta daudela.

Auditore Francisco José Etayo Salazar jauna izan da lan honen arduraduna, eta hark proposatuta eman da txosten hau, indarreko araudiak ezarritako izapideak bete eta gero.

Iruñean, 2005eko otsailaren 7an

Lehendakaria: Luis Muñoz Garde

## Tuterako Udalari buruzko fiskalizazio txostena, 2003ko ekitaldikoa, Comptos Ganberak egina.

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2005eko otsailaren 14an eginiko bilkuran, erabaki zuen Comptos Ganberak Tuterako Udalari buruz egin-dako fiskalizazio txostena, 2003ko ekitaldikoa, argitara dadila agintzea.

Iruñean, 2005eko otsailaren 16an

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

### Tuterako Udalari buruzko fiskalizazio txostena, 2003ko ekitaldikoa, Comptos Ganberak egina

#### AURKIBIDEA

- I. Sarrera (13. or.).
- II. Helburua (14. or.).
- III. Norainokoa (14. or.).
- IV. Iritzia (14. or.).
  - IV.1. Aurrekontuaren likidazioaren inguruan (14. or.).
  - IV.2. Ondare egoeraren azalpena. (15. or.).
  - IV.3. Legezketasuna (15. or.).

IV.4. 2003ko abenduaren 31ko egoera ekonomiko eta finantzarioa (15. or.).

IV.5. Informazio osagarria eta azalpen oharrak (15. or.).

IV.6. Comptos Ganberaren gomendioen jarraipena (15. or.).

IV.7. Ondorio orokorra (15. or.).

V. Iruzkin eta gomendio orokorrak. (15. or.).

V.1. Administrazio-kontratazioa (15. or.).

V.2. Beste gomendio batzuk (16. or.).

V.3. Erakunde autonomoak (17. or.).

Eranskina. 2003ko finantzen egoera-orri bateratuen oroit-idazkia.

(Oharra: aipatu eranskina foru parlamentarien eskura dago Legebiltzarreko Zerbitzu Orokoretako bulegoetan eta ondoko webgunean: [www.cfnavarra.es/camara.comptos](http://www.cfnavarra.es/camara.comptos)).

#### I. SARRERA

Tuterako Udalak 31.228 biztanle ditu, eta hauek dira bertako zifra adierazgarrienak 2003ko abenduaren 31n:

(euroak)

Entitatea	Aitorturiko betebeharrak	Aitorturiko eskubideak	Langileak, 2003-12-31n
Udala	34.185.072,15	31.250.830,74	267
Uren Udal Batzarra	2.768.930,97	3.048.222,61	20
Castel-Ruiz Kulturgunea	1.676.709,65	1.632.703,60	23
Bateratzearen doitzeak	-1.171.391,38	-1.171.391,38	
Guztira	37.459.321,39	34.760.365,57	310

Udalak ondoko mankomunitate eta partzuergoetan hartzen du parte:

- Erriberako hondakin solidoen mankomunitatea, zaborrak biltzeko zerbitzua ematen duena, eraikinak zaharberritzeko bulegoa eta txakurtegia.

- UNEDen Tuterako ikastetxe asoziatuaren partzuergoa

- Tarazonicaren Bide Berdearen partzuergoa.

- Nafarroako Erribera garatzeko estrategietarako partzuergoa (EDER).

## II. HELBURUA

Nafarroako Toki Administrazioari buruzko uztailaren 2ko 6/1990 Foru Legeari, Nafarroako Toki Ogasunei buruzko martxoaren 10eko 2/1995 Foru Legeari eta Comptos Ganbera arautzen duen abenduaren 20ko 19/1984 Foru Legeari jarraituz, Tuterako Udalaren eta haren erakunde autonomoen 2002ko ekitaldiko kudeaketa ekonomiko eta finantzarioaren fiskalizazioa egin dugu. Halaber, ekitaldi horretako gastu- eta dirusarrera-aurrekontuen betetzea ere fiskalizatu dugu.

Toki entitateari aplikatzekoa den araubide juridikoa, funtsean, honako hauek osatzen dute: aurretik aipatutako legeak, Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legea, Nafarroako Administrazio Publikoen zerbitzuko Langileen Estatutua (abuztuaren 30eko 251/1993 Foru Dekretua), administrazio-kontratazioari nahiz hirigintza-kudeaketari buruzko arauak (bereziki, ekainaren 16ko 10/1998 Foru Legea) eta Nafarroako toki enteei orokorki aplikatzekoak zaizkien gainontzeko arauak.

1998ko irailaren 21eko 270, 271, 272 foru dekretuetan dago ezarrita kontabilitate eta aurrekontuei buruzko araubide juridikoa. Lehenengo dekretua aurrekontu eta gastu publikoei buruzkoa da, bigarrena aurrekontuen egiturari buruzkoa, eta hirugarrena, berriz, kontabilitate instrukzio orokorra.

Txostenak helburu du honako puntu hauei buruzko gure iritzia agertzea:

- a) Tuterako Udalaren eta haren erakunde autonomoen 2003ko ekitaldiko aurrekontuen garapena eta betetzea.
- b) 2003ko abenduaren 31n zegoen ondare-egoera islatzea, aplikatzekoak zaizkion kontabilitate-printzipioei jarraituz.
- c) Jarduera ekonomiko eta finantzarioa legez-kotasun-printzipioari lotua egon ote den.
- d) 2003ko abenduaren 31n udalak eta haren erakunde autonomoek zeukaten finantza-egoera.
- e) Tuterako Udalaren finantzen egoera-orri bateratuen informazio osagarrian eta azalpen oharretan ageri diren datuen eta iruzkinen arrazoiztasuna eta koherentzia.
- f) Nafarroako Comptos Ganberak 2002ko ekitaldiari buruz egindako fiskalizazio-txosteneko gomendioak noraino bete diren.

## III. NORAINOKOA

Comptos Ganberak, bere jarduketa programarekin bat, Tuterako Udalaren eta haren erakunde

autonomoen –Uren Udal Batzarra eta Castel-Ruiz kultur etxea– finantzen egoera-orri bateratuen fiskalizazioa egin du; egoera-orri horietan sarturik daude 2001eko ekitaldiko aurrekontu bateratuaren likidazioaren egoera-orria, aurrekontuen emaitza bateratua eta diruzaintzako gerakin bateratua, eta 2001eko abenduaren 31ko egoeraren balantze bateratua, bai eta 2001eko finantzen egoera-orri bateratu horien informazio osagarria eta azalpen oharra ere.

Tuterako Udalak ezarrita du kontabilitate publikoari buruzko plan orokorra. Halaber, erakunde autonomoek kontabilitate orokorreko aplikazio bat daukate.

Eginiko azterketak dirusarrera eta gastuen kapitulu ekonomikoak eta abenduaren 31ko egoera-balantzea ikuskatu ditu, eta antolamendu, kontabilitate eta barne-kontrolari buruzko gaiak aztertu ditu.

Espainiako Estatuko Kanpo Kontroleko Organo Publikoen Koordinazio Batzordeak onetsiriko “sektore publikoko auditoretzarako printzipioak eta arauak” betez eta, inguruabarren arabera, beharrezkotzat jo ditugun proba guztiak aplikatuz egin dugu lana.

Txosten honetan daude Tuterako Udalaren eta bere erakundeen antolamendua, barne-kontrola, eraginkortasuna eta efizientzia hobetzeko komenigarritzat jotzen ditugun iruzkin eta gomendioak.

Lan hau egiteko eman diguten laguntzarengatik eskerrak ematen dizkiegu Udaleko eta haren erakunde autonomoetako langileei.

## IV. IRITZIA

Burututako fiskalizazioaren esparruan, Tuterako Udaleko 2003ko ekitaldiko finantzen egoera-orri bateratuak aztertu ditugu. Egoera-orri horiek Udalaren ardurapean burutu ziren; laburtuta bildu ditugu txosten honen eranskin gisa gehitu dugun urteko oroit-idazkian.

Gure lana egiteko, onartu ohi diren auditoria publikoko arau eta prozedurak erabili ditugu, inguruabarren arabera eta lortu nahi ziren helburuak kontuan hartuz.

Egindako berrikuspenaren ondorio gisa, honako iritzia agertuko dugu:

### IV.1. AURREKONTUAREN LIKIDAZIOAREN INGURUAN

2003ko aurrekontuaren likidazioaren egoera-orriak ongi agertzen ditu, garrantzizkoak diren xehetasun guztiekin, ekitaldiko dirusarrera eta

gastuak, kobratzeke dauden eskubideak, ordaintzeke dauden betebeharrak eta baita 2003ko abenduaren 31n dagoen diruzaintzako gerakina ere.

#### IV.2. ONDARE EGOERAREN AZALPENA.

2003ko abenduaren 31ko egoeraren balantzeak nahiko ongi erakusten du udalaren ondare egoera zein den, salbuespen batekin, ez baitira zenbatetsi martxoaren 5eko 10/2003 Foru Legeak arautzen duen funtzionarioen pentsio sistemak dakartzan betebeharrak aktuarialak.

#### IV.3. LEGEZKOTASUNA

Oro har, Tuterako Udalaren jardura ekonomiko eta finantzarioa legezketasun printzipioari jarraituz egiten da, baina lehiarik gabe eta txosten teknikoek ziotenaren kontra adjudikatu dira obra enblematico eta finantza kostu handiko baterako aurreproiektuaren erredakzioa, etorkizuneko proiektuaren erredakzioa eta zuzendaritza.

#### IV.4. 2003ko ABENDUAREN 31ko EGOERA EKONOMIKO ETA FINANTZARIOA

Hasierako aurrekontu bateratua: 45.261.868 euro. Behin betikoa, 54.625.371 euro. Gastuen betetze-maila: ehuneko 68,57. Dirusarreraren betetze-maila: ehuneko 63,63.

Ekitaldia ixtean aurrekontuko emaitza doitu 473.594 eurokoa zen. Ixtean, zorrak 18.036.739 euro egiten zuen, eta 2003an mailegu berri bat izenpetu zen, 6.051.271 eurokoa. Abian dauden inbertsio proiektuek kanpoko finantzazioa beharko dute, 8.205.859 eurotan.

Ekitaldia ixtean finantza egoeraren ezaugarriak hauexek ziren: ehuneko 4,3ko zorpetze maila, ehuneko 2ko aurrezki garbia eta 342.028 euroko diruzaintzako gerakin bateratua.

Erantsiriko oroit-idazkian ageri denez, aurrezki garbia murrizten doa urterik urte, udalaren autofinantzaziorako ahalmen-galeraren egiturazko izaeraren erakusgarri. 2003an, dirusarrera arruntak funtzionamendu gastuak eta finantza zama finantzatzen ahitu ziren, eta azken hori ez da nabarmen aldatuko hurrengo ekitaldietan. Ez dirudi egoera hori bateragarria denik zor berria bereganatzearekin ez eta inbertsio proiektu handiak gauzatzearrekin ere.

#### IV.5. INFORMAZIO OSAGARRIA ETA AZALPEN OHARRAK

Finantzen egoera-orri bateratuen informazio osagarria eta azalpen oharretan beharrezkoa den informazioa dago haiek ongi interpretatu eta ulertzeko.

#### IV.6. COMPTOS GANBERAREN GOMENDIOEN JARRAIPENA

Oro har, esan daiteke Tuterako Udala betetzen ari dela aurreko txostenetan eginiko gomendioak, nahiz eta egintza jakin batzuk ezarri gabe dauden.

#### IV.7. ONDORIO OROKORRA

Udalak behar bezala kudeatzen ditu bere aurrekontuak. Hala ere, prozedurak hobetzearren, beharrezkoa du:

a) *Lehenbailehen ekitea finantza plan bati, honakoak betez ezinbestean: haren zerga ahalmena erabiltzea, gastuari zorrotz eustea, zerbitzu berriak emateari buruz erabaki aurretik azterlan ekonomikoak egitea, ematen diren zerbitzuen kostuak eta herritarrengan duten eragina aztertzea eta udalarentzat lehentasuna duten premien eta haren finantzabideen gaineko proiektzio ekonomiko-finantzarioak ere.*

b) *Aurrekontu sistema eraberritzeko bitartekoak ezartzea, jardueraren helburu eta adierazleak jasoz eta kudeaketan lortutako eraginkortasun eta ekonomia maila aztertu eta neurtzeko prozedurak ezarri.*

b) *Inbertsioak egiteko epeei buruzko kontrola areagotzea.*

c) *Erakunde autonomoen esparruan kontu-hartzailetza funtzioa osatzea, era berean indartuz a posteriori egin beharreko jardura eta barne-auditoretzako unitate gisa egiten duen jardura ere.*

### V. IRUZKIN ETA GOMENDIO OROKORRAK.

#### V.1. ADMINISTRAZIO-KONTRATAZIOA

Atal honetan bereizten dira, batetik, zerbitzuak emateko, hornitzeko eta erosketak egiteko kudeaketa, eta bestetik, inbertsioak.

##### V.1.1. Erosketak eta zerbitzuak emateko eta hornitzeko kontratuak

Espediente hauek aztertu ditugu:

			Adjudikazioa
Ziberzentroko ekipo informatikoa	Hornidura	Lehiaketa irekia	49.850
Abonatuene kudeaketarako sistema informatikoa	Hornidura	Lehiaketa irekia	95.213
Lourdes ikastetxe zenaren ekipamendua	Hornidura	Lehiaketa irekia	54.584
Bainugelako ekipamendua	Hornidura	Lehiaketa irekia	60.000
Lorategietarako landareak	Hornidura	Enkante irekia	50.929
Gizarte etxeetako jarduera soziokulturalak	Laguntza	Lehiaketa irekia	51.100
Aparkatze mugatuko zerbitzua	Zerbitzuak	Lehiaketa irekia	

Aztertutako laginaren arabera eta orokorrean, hauxe gomendatzen dugu:

- *Pleguetan hautapen irizpideei emandako puntuak banatzeko formula edo azpi-irizpideak zehaztuko dira.*

### V.1.2 Inbertsioak

Espedienteen lagin hau egiaztatu dugu:

			Adjudikazioa
Monreal dorrea zaharberritzea	Obra	Lehiaketa irekia	425.084
Virgen de la Cabezako parkearen erreforma	Obra	Lehiaketa irekia	122.762
Kultur-etxearen aurreproiektua	Laguntza	Negoziatua, publizitaterik gabekoa	48.090
Udal irisgarritasunaren plana	Laguntza	Lehiaketa irekia	71.100
Mejanako mendebaldeko bideari zoladura ematea	Obra	Negoziatua, prentsan iragarrita	61.461

Aztertutako laginetik ondorioztatzen da hobetu beharreko honako puntu hauek daudela:

Kultur etxearen aurreproiektua zuzenean adjudikatu zen, idazkariak eta kontu-hartzaileak kontrako txostenak eman bazituzten ere, kontrataturiko profesionala garrantzi handikoa zelako argudioarekin. Horrek berarekin dakar etorkizunean obra egiteko proiektuaren erredakzioa eta zuzendaritza adjudikatzea, udalbatzak onartzen badu, eta prezio horri kenduko zaio hemen adjudikatutakoa. Bigarren kontratu horren zenbatekoa muntakoa izanen da, kontuan hartuta nolako obra den, eta aurre proiektuan ageri denez, 10 milioi euro ingurukoa.

- “Mejanako mendebaldeko bideari zoladura ematea” izeneko espedienteen ez da ageri behin-behineko onarpen akta. Ez da ageri kontabilizaturik, halaber, obra honen inguruko inolako gasturik, kontzeptu honetako fakturarik ez baita sartu ekonomia alorrean. Baina adjudikazio hartzaileak dio adjudikazioaren antzeko zenbateko baten har-

tzekoduna dela. Arrazoiak izan daiteke kontratuaren xedea aldatu izana, obrak hasi baino lehen egin baitzen, inongo prozedurari edo tramitaziori lotu gabe, eta beste bide baten zoladura ematea egin zen.

- Aztertutako obra batzuk kontratuan ezarritako epeak iragan ondoren amaitu ziren, eta pleguan jasotako zehapenak ez ziren ezarri.

*Ondorioz, esan dezakegu ezen udalak, oro har, kontratazio-araudia betetzen duela, baina halere aurreko lerrokatetan aipatutako zuzenbide-alderdiak bete behar ditu, barne-araudi bat ezarri behar du eta, batez ere, obren epeak betetzen diren hobeki kontrolatu behar du.*

### V.2. BESTE GOMENDIO BATZUK

Jarraian azaltzen dira, kudeaketa-arlo garrantzitsuenetako bakoitzerako, Comptos Ganbera honen aburuz udalak jarraitu behar dituen gomendio nagusiak, bere antolamendu, prozedura, konbilitate eta barne-kontrolako sistemak hobetzeko.



### **V.2.1. Kontabilitatea, aurrekontuak eta bame-kontrola**

Orokorrean, ondoko hauek gomendatzen ditugu:

- *Aurrekontuko inbertsioetarako zenbatekoak kudeaketa-ahalmen errealetara doitu eta hurbiltzea, kreditu-gerakinetako saldo handiak hurrengo ekitaldietako aurrekontuetara ez gehitzearren.*

- *Ikusirik udalak betiko aurrekontua kudeatzen lortu duen zorroztasun teknikoa, komenigarria dirudi beste aurrerapauso bat egitea, baliabide publikoak erabiltzean udaleko ardura-esparruek lortzen duten eraginkortasun, efizientzia eta ekonomia maila aztertzea ahalbidetuko duten kudeaketa-erlako adierazle eta helburuak ezarriz. Hori guztia udal kudeaketaren plangintza ekonomikoaren prozesuaren barruan eginen da, behar diren langile eta bitarteko materialekin.*

- *Erakunde autonomoen ekonomia eta finantza kontrolatzeko prozesua osatzea.*

- *Udalaren kontuhartzailtzak ondoren egin beharreko lana bultzatzea, bai fiskalizazioaren aldetik eta baita prozedurak aztertu eta hobekuntzak ezartzearen aldetik ere.*

### **V.2.2. Ibilgetua-inbentarioa**

Gaurkotzen zen udal inbentarioko zenbatekoak eta kontabilitateko kopuruak 2001eko ekitaldian bateratu ondoren, ezarritako ildo horri jarraitu behar zaio orain, erabiltzen den programak eskainitako informazioa kudeaketaren beharretara egokituz.

### **V.2.3 Finantza-kontuak eta diruzaintza**

Kudeaketa-hobekuntzei buruz, gure gomendioa da:

- *Diruzaintzako prozedura nagusiak ezartzea, idatziz, eta aldi oro gaurkotuta mantentzen saiatzea.*

- *Derrigorrezko dirubilletako kontuak diruzaintzako egoera-orrietan eta egoera-balantzean sartzea.*

### **V.2.4. Tributuen bidezko dirusarrerak eta zordunak**

- *Agente betearazlearen eta udalaren arteko kontratua gaurkotzea.*

### **V.2.5. Gorabeherak**

2004ko apirilean ebazteko zeuden 35 auzi, hainbat jurisdikziotan aurkeztuak, eta haietako batzuen balorazio ekonomikorik egiterik ez dago prozesuaren une honetan, baina udalari arriskua ekar diezaiokete aurrerago, gutxienez 1.731.000 eurokoa eta beste 2.000.000 eurokoa, Nafarroako Gobernuarekin partekaturiko erantzukizunean.

### **V.3. ERAKUNDE AUTONOMOAK**

Ildatz-zati honetan biltzen dira udalaren bi erakunde autonomoetan egindako berrikuspenaren ondorio nagusiak: Uren Batzarrean eta Castel-Ruiz Kulturgunean egindako berrikuspenarenak, alegia.

#### **V.3.1. Uren Batzarra**

Egindako berrikuspenetik, ondoko gomendioak ematen ditugu:

- *Berriz diogu beharrezkoa dela Batzarreko idazkariak duen lan-harremana toki entitateen egungo araudira lotzea, gaur egun zerbitzu-alokatzetara harremana baitu.*

- *Inbertsioak tramitatu eta egiteko epeen gaineko kontrol zehatza egitea.*

- *Udal kontu-hartzailtzarekin batera, bere eginkizuna den espedienteen tramitazioa egitea.*

- *Agente betearazleari jarduera horietan ohikoak diren garantiak eman ditzala eskatzea eta horretarako, behar izanez gero, bi aldeak lotzen dituen kontratua aldatzea.*

#### **V.3.2 Castel-Ruiz Kulturgunea**

Egindako berrikuspenetik, ondoko gomendioak ematen ditugu:

- *Udalaren ondasunak ibilgetuari atxikitzea eta ondare-masa horretako datuak aldeztu aurretik gaurkotutako inbentariokoekin bateratzea.*

- *Entitateak dituen kontu korronteetako mugimenduak kontabilitate-kontu bereizietan erregistratzea, eta ez "kutxa" deituriko bakar batean.*

- *Udal kontu-hartzailtzarekin batera, bere eginkizuna den espedienteen tramitazioa egitea.*

Auditore Francisco José Etayo Salazar jauna izan da lan honen arduraduna, eta hark proposatuta eman da txosten hau, indarreko araudiak ezarritako izapideak bete eta gero.

Iruñean, 2005eko otsailaren 9an

Lehendakaria: Luis Muñoz Garde

## **Corellako Udalari buruzko fiskalizazio txostena, 2003ko ekitaldikoa, Comptos Ganberak egina.**

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2005eko otsailaren 21ean eginiko bilkuran, erabaki zuen Comptos Ganberak Corellako Udalari buruz egingako fiskalizazio txostena, 2003ko ekitaldikoa, argitara dadila agintzea.

Iruñean, 2005eko otsailaren 23an

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

### **Corellako Udalari buruzko fiskalizazio txostena, 2003ko ekitaldikoa, Comptos Ganberak egina**

#### **AURKIBIDEA**

- I. Sarrera (19. or.).
  - II. Helburua (19. or.).
  - III. Norainokoa (19. or.).
  - IV. Iritzia (20. or.).
    - IV.1. 2003ko aurrekontu bateratuaren likidazioa (20. or.).
    - IV.2. 2003ko abenduaren 31ko ondare-egoe-raren agerpena (20. or.).
    - IV.3. Legezketasuna (20. or.).
    - IV.4. 2003ko abenduaren 31ko finantza-egoe-ra (20. or.).
    - IV.5. Informazio osagarria eta azalpen ohar-rak (21. or.).
    - IV.6. 2002ko txostenaren gomendioen jarrai-pena. (21. or.).
    - IV.7. Laburpena eta ondorio nagusia (21. or.).
  - V. Iruzkinak, ondorioak eta gomendioak (21. or.).
    - V.1. Langileak (21. or.).
    - V.2. Administrazio-kontratazioa (21. or.).
    - V.3. Bestelako kudeaketa-gomendioak (22. or.).
  - VI. Gorabeherak (23. or.).
- Eranskina Udalaren finantzen egoera-orri batera-tuen oroit-idazkia 2003ko abenduaren 31n .
- (Oharra: aipatu eranskina foru parlamentarien eskura dago Legebiltzarreko Zerbitzu Orokorretako bulegoetan eta ondoko webgunean:  
[www.cfnavarra.es/camara.comptos](http://www.cfnavarra.es/camara.comptos)).

**I. SARRERA**

Corellako Udalak 7.432 biztanle ditu, eta hauek dira bertako zifra adierazgarrienak 2003ko abenduaren 31n:

Euroak

Entitatea	Aitorturiko betebeharrak	Aitorturiko eskubideak	Langileak 2003-12-31n
Udala	7.285.827	7.688.726	62
San José Zaharrentzako Egoitza	593.278	514.093	18
Guztira	7.879.105	8.202.819	80

Udala Moncayoko Uren Mankomunitatean eta Erriberako Hondakin Solidoen Mankomunitatean sarturik dago, eta haien bitartez ematen ditu ur horniduraren eta zabor bilketaren zerbitzuak, hurrenez hurren, eta Eder Turismo Partzuergoan ere parte hartzen du.

**II. HELBURUA**

Nafarroako Toki Administrazioari buruzko uztailaren 2ko 6/1990 Foru Legeari, Nafarroako Toki Ogasunei buruzko martxoaren 10eko 2/1995 Foru Legeari eta Comptos Ganbera arautzen duen abenduaren 20ko 19/1984 Foru Legeari jarraituz, Corellako Udalak eta bere erakunde autonomoak 2003ko ekitaldian izan duten kudeaketa ekonomiko eta finantzarioa eta gastuen eta dirusarreraren aurrekontuen betetzea fiskalizatu ditugu.

Toki entitateari aplikatu beharreko araubide juridikoa osatzen dute, funtsean, lehen aipaturiko lege horiek, Toki araubidearen oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legeak, Nafarroako administrazio publikoen zerbitzuko langileen estatutuak eta administrazio-kontratazioa nahiz hirigintza-kudeaketa eraentzen dituzten arauak; baita Nafarroako toki enteei modu orokorrean aplikatu beharreko gainontzeko arauak ere.

Kontabilitatearen eta aurrekontuen arloan, araubide juridikoa ezartzen dutenak 1998ko irailaren 21eko 270, 271 eta 272 foru dekretuak dira, zeinak aurrekontu eta gastu publikoari, aurrekontu-egiturari eta Nafarroako toki administrazioarako kontabilitateari buruzkoak baitira.

Txostenak honako puntu hauei buruzko gure iritzia agertzea du helburu:

a) Corellako Udalaren eta haren erakunde autonomoaren 2003ko ekitaldiko aurrekontuaren garapena eta betetzea.

b) 2003ko abenduaren 31ko ondare-egoeraren agerpena, aplikatzekoak diren kontabilitate-printzipioei jarraituz.

c) Jarduera ekonomiko eta finantzarioa legez-kotasun-printzipioari lotua egon ote den.

d) Udalaren eta haren erakunde autonomoaren 2003ko abenduaren 31ko finantza-egoera.

e) Corellako Udalaren finantzen egoera-orri bateratuen informazio osagarrian eta azalpen oharretan ageri diren datuen eta iruzkinen arrazoizkotasuna eta koherentzia.

f) Egin zuen azken fiskalizazio-txostenean, zeina 2002ko ekitaldiari buruzkoa baita, Comptos Ganberak eman zituen gomendioak noraino bete diren.

**III. NORAINOKOA**

Comptos Ganberak, bere jarduketa programa-rekin bat, Corellako Udalaren (aurrerantzean, "udala") eta haren erakunde autonomoaren –San José Zaharrentzako Egoitza– finantzen egoera-orri bateratuen fiskalizazioa egin du; egoera-orri horietan sarturik daude 2003ko ekitaldiko aurrekontu bateratuaren likidazioaren egoera-orria, aurrekontuen emaitza bateratua eta diruzaintzako gerakin bateratua, eta 2003ko abenduaren 31ko egoeraren balantze bateratua, bai eta udalaren finantzen egoera-orri bateratu horien informazio osagarria eta azalpen oharrak ere, 2003ko ekitaldikoak.

Nafarroako Parlamentuak eskatuta, Comptos Ganberak fiskalizazio txosten bat eman zuen 2004ko maiatzean Corellako Udalaren kirol instalazioak eraikitzeari buruz (1997-2003), eta beraz bertan aztertutako egitateak ez dira txosten honen xedea. V.2.2. atalean, inbertsioei buruzkoan, gertaera garrantzitsuenak aipatzen dira, txosten hori itxi ondorengoak.

Udalak eta haren erakunde autonomoak ezarri-rik dute Kontabilitate publikoari buruzko plan orokorra, eta kontabilitatearen egoera-orri bateratuak dauzka 2003ko ekitalditik aurrera.

Eginiko lanak aurrekontuaren betetzearen kapi-  
tulu ekonomikoen berrikuspena (aurrekontuko  
aldaketak eta aurreikuspenen betetze-maila azter-  
tu dira) eta ondare-masa ezberdinen berrikuspena  
(antolaketa, kontabilitate eta barne-kontrolako  
gaiak aztertu dira) izan ditu ardatz nagusi.

Lana burutu da Espainiako Estatuko Kanpo  
Kontrolako Organo Publikoak Koordinatzeko  
Batzordeak onetsitako fiskalizazio printzipioei eta  
arauei jarraituz eta aurreko urteetako lanetan  
agerian utzi diren baldintzen eta arazoen arabera  
beharrezkotzat jo ditugun proba guztiak aplika-  
tuz.

Txostenean daude udalaren eta haren era-  
kunde autonomoaren antolamendua, barne-kon-  
trolla, eraginkortasuna eta efizientzia hobetzeko  
beharrezkotzat jotzen ditugun iruzkin eta gomen-  
dioak.

Azterketa lana 2004ko maiatz eta ekainean  
egin dugu.

Lan hau egitean emandako laguntza eskertzen  
diegu udaleko eta haren menpeko erakunde auto-  
nomoko langileei.

#### IV. IRITZIA

Adierazitako norainokoa aintzat hartuz, Core-  
llako Udalaren eta haren erakunde autonomoa-  
ren finantzen egoera-orri bateratuak, 2003ko  
abenduari 31n amaituriko ekitaldikoak, aztertu  
ditugu. Egoera-orri horiek udalaren ardurapean  
egin dira.

Berrikuspena egitean, Espainiako Estatuko  
Kanpo Kontrolerako Organo Publikoak Koordina-  
tzeko Batzordeak onetsitako sektore publikoaren  
auditoriako arau eta prozedurak aplikatu dira.

Egindako azterketaren emaitza gisa, ondoko  
iritzia eman behar dugu:

##### IV.1. 2003ko AURREKONTU BATERATUAREN LIKIDAZIOA

Erantsi dugun 2003ko aurrekontu bateratuaren  
likidazioaren egoera-orriak eta oharrek ekitaldiko  
jarduera eta 2003ko abenduaren 31ko aurrekontu-  
egoera behar bezala agertzen dute, garrantzizko-  
ak diren alderdi guztiei dagokienez.

##### IV.2. 2003ko ABENDUAREN 31ko ONDARE- EGOERAREN AGERPENA

Erantsi dugun 2003ko abenduaren 31ko egoe-  
ra-balantzeak eta oharrek udalaren ondare-egoera  
agertzen dute, garrantzizkoak diren alderdi guztiei  
dagokienez, baina honako salbuespen hauekin:

- Ondasunen inbentarioa (ibilgetua), 1991ekoa  
da, eta gaurkotzeko dago.

- Zalantza dago zenbait auzi eta erreklamazio-  
ren inguruan, eta horietatik pasiboak sor daitezke,  
baina 2003ko abenduaren 31n ez dago horien  
zenbatespen ekonomikoa egiterik.

##### IV.3. LEGEZKOTASUNA

Corellako kirol instalazioak eraikitzeari buruzko  
fiskalizazio txostenean (1997-2003), ganbera  
honek 2004an emaniko hartan, legezkontasunaren  
alderdi zenbait akats zeudela adierazi zen, eta  
hemen errepikatutzat eman daitezke.

Txosten hura eman ondoren gertatu zena  
Inbertsioei buruzko V.2.2. atalean aztertzen da.

Udalaren jarduera ekonomiko eta finantzarioa  
2003ko ekitaldian legezkontasunari jarraiki bete da,  
salbu eta inbertsio txiki batzuen kontratazioaren  
kasuan, hiru eskaintza eskatu gabe egin baitira,  
eta herriko enpresei industriaren udal sustapena-  
ren aldeko politiken ildoan emandako laguntzen  
kasuan, gure iritziz lege esparru indarduna gaindi-  
tzen dutelako.

##### IV.4. 2003ko ABENDUAREN 31ko FINANTZA- EGOERA

Hasierako aurrekontu bateratua, 2003an,  
9.094.000 eurokoa da, eta behin betikoa,  
12.457.000 eurokoa. Gastuen betetze-mailak ehu-  
neko 63,25 du, eta dirusarreraren ehuneko 65,85.  
Aurrekontuetako inbertsioak ez betetzeak –kapi-  
tuluaren betetzea ehuneko 24koa da– eragin du  
betetzea apala izatea kapital transferentzien bidez-  
ko dirusarreretan eta finantzarioetan, obrak finan-  
tatzeko ez direlako beharrezkoak, eta aurreikusitako  
finantza gastuak murriztea; horrek argitzen du  
aurrekontuen betetze maila.

Dirusarreraren artean, zuzeneko zergen exeku-  
zioa ehuneko 104,83koa izan da, eta zeharkakoe-  
na ehuneko 91,72koa; bi kapitulu horiek ekitaldiko  
dirusarreraren ehuneko 18,91 egiten dute. Udalaren  
baliabideen ehuneko 26 inguru transferentzietatik  
datoz.

Ekitaldia ixtean 323.000 euroko superabita izan  
da, eta aurrekontuko emaitza doitua 795.000 euro-  
ko superabita izan da.

Finantza zorra, 2003ko abenduaren 31n, 2.434.000 eurokoa da (2.315.000 eta 118.000 euro, udalarenak eta erakunde autonomoarenak, hurrenez hurren) eta arrazoi nagusia da inbertsioen finantzazioa. Finantza zama ehuneko 61ekoa da, eta aurrezki garbi negatiboa ehuneko 41ekoa, zorra berriz finantzatu delako. Birfinantzatzeko hori kenduta, finantza zama ehuneko 6,45ekoa da eta aurrezki garbi positiboa ehuneko 13koa. Diruzaintza-gerakin bateratuak 516 mila euro egiten du.

#### IV.5. INFORMAZIO OSAGARRIA ETA AZALPEN OHARRAK

Finantzen egoera-orri bateratuen informazio osagarrian eta azalpen oharretan beharrezkoa den informazioa dago, oro har, egoera-orri haiek ongi interpretatu eta ulertzeko, udaleko oroit-idazkiak agertzen duenez. Nolanahi ere, edukia osatu beharko litzateke, ikusirik:

- Ez da ageri inolako informaziorik kontratazio, konpromiso eta gorabeherei buruz, ez eta udalaren egoera fiskalaz, hurrengo urteetarako hartutako konpromisoei eta, kasua bada, ekitaldia itxi ondoko gertaerarako.

- Ez dago organigramarik.

#### IV.6. 2002ko TXOSTENAREN GOMENDIOEN JARRAIPENA.

Oro har, esan daiteke ganbera honek egindako administrazio eta kontabilitate izaerako gomendio nagusiak aintzat hartu direla, eta batzuk 2004an ari direla praktikan jartzen.

#### IV.7. LABURPENA ETA ONDORIO NAGUSIA

Laburtuz, eta ondorio nagusi gisa, esan genezake Corellako Udalak modu egokian kudeatzen duela aurrekontua, administrazio-ikuspegi batetik begiraturaz. Hala ere, honako hau du beharrezko:

- *Aurrekontua legeak aurreikusitako epean onestea, kudeaketarako tresna gisa erabili ahal izateko.*

- *Aurrekontuko kudeaketaren barne kontrola sendotzea, egindako operazioak bermatzeko edo idatziz jasotzeko, bereziki inbentarioak gaurkotze-ari edo saldoak berdinkatze-ari eta berrikusteari dagokienez.*

- *Kontratazio espedienteak osatzea, batez ere adjudikazioaren aurretiko jarduketan inguruan eta betetzearen jarraipenean eta kontrolean.*

## V. IRUZKINAK, ONDORIOAK ETA GOMENDIOAK

### V.1. LANGILEAK

Kontu-hartzaitzari egindako eragozpen oharren arabera, ekitaldiari egotzi zaio 344 aparteko orduren ordainketa, udal arkitektoak 2002an egini-koak. Horietako batzuk, alkateak baimenduak, autobusen geltokia egiteko obren proiektua prestatzeko aparteko lan baten ordainketa ziren.

*Urteko 80 aparteko orduen gehienekoa errespetatu beharra dago eta gogorarazi bidenabar, hitzarmenik ezean ordu horien ordainetan atsedena emanen dela, ondoko lau hilabeteen barrenean, Langileen estatutuaren 35. artikulua dioenaren arabera.*

### V.2. ADMINISTRAZIO-KONTRATAZIOA

Atal honetan xeheaturik agertuko ditugu, alde batetik, hornidurak erosi eta zerbitzuak emateari buruzko alderdiak eta, bestalde, inbertsioak.

#### V.2.1. Homidurak erosi eta zerbitzuak ematea

Ekitaldian adjudikatu den zerbitzuak kontratazeko espediente bakarra aztertu dugu, kultur etxearen garbiketari buruzkoa, 2003ko abuztuan adjudikatu zena prentsan iragarritako prozedura negoziatuaren bidez.

Horrez gain, egiaztatu dugu zerbitzuak emateko gainerako kontratuen antzintasuna, ekitaldian indarra zutenena.

Comptos Ganbera honen gomendioak betez, erosketen kudeaketarako prozedura normalizatu aplikatzen da. Oro har, azterketaren ondorioa da hornidurak eta zerbitzu emateak kontratazeko prozedura egokia dela. Dena den, honako gomendio hauek egiten ditugu:

- *Udalaren kontratuen erregistro gaurkotua izatea.*

- *Idatziz jasotzea aplikatutako erosketen prozedura, bai udalarena bai erakunde autonomoarena.*

- *Kontratuak luzatzearen gaineko araudi indarduna betetzea, luzatu diren kontratu batzuek 6 urteko gehieneko epea, Kontratuei buruzko Foru Legeak laguntza kontratu-erako ezarritakoa, gainditzen baitute.*

## V.2.2. Inbertsioak

Kapitulu ekonomiko honetan nabarmentzen da betetze maila, ehuneko 24koa, aurrekontuetan sartutako obrak ez egiteagatik, hala nola igerileku estalia eta hiru urteko plana, 2001-2003, eta horrek eragin du aurrekontuaren betetzea, oro har, ehuneko 65etik beherakoa izatea.

Hona hemen 2003an adjudikatu eta eginiko inbertsio nagusien zehaztapena (espedienteak aztertu ditugu eta inbertsio horiek 2003ko ekitaldian zehar aitorturiko betebeharren ehuneko 10,56 egiten dute, gutxi gorabehera):

Espedientea	Prozedura	Gastua, 2003 (euroak)
Udaltzaingoaren ibilgailua	Negoziatua, prentsan iragarri beharrekoa	23.544
Kaleak urbanizatzeko proiektua	Irekia, lehiaketa	59.798
Tenis pista udako igerilekuan	Negoziatua, prentsan iragarri beharrekoa	55.067
Guztira		138.409

Azterturiko hiru espedienteak kontratazioari buruzko araudiari egokitu zaizkio, eta berdintasun, lehiakortasun eta publizitate printzipio oinarrikoak errespetatu dira.

### Kirol instalazioak

Obra hauen inguruko kontratazio espedienteak Ganbera honek 2004ko maiatzean emaniko txosten batean aztertu genituen. 2003ko ekitaldian gastua 626.204 eurokoa izan da. Azpimarratzeko moduko gertaera hauek aipatu ahal dira, txosten hura itxi ondoren gertatuak:

Ekainean 29.970 euroko ordainketa bat egiaztatu zen, futbol zelaia eta aldagelen eraikina egiteko obraren exekuzio proiektua aldatzeko eta obra zuzendaritzarako; ordainketa hori ez du inongo udal erabakik justifikatzen eta zati batean igerileku estalia egiteko proiektu baten aldaketa batena izan liteke, baina lehen esan bezala bigarren proiektu honen gaineko kontratazio espedienterik ez dago, ez eta erregistraturiko gasturik ere.

Igerileku estalirako obrak, 2003ko maiatzean adjudikatuak, ez dira hasi. 2003ko azaroan, adjudikazio hartzaileak kontratua suntsitzeko eskatu zuen, administrazioari egotzi beharreko kasua zela kausa, eta legezko zenbatekoak ordaintzeko, alegia 114.243 euro. Osoko Bilkurak 2003ko abenduan hartutako Erabakiaz eskaera ekonomikoa eze-tsi zen eta horrekin batera indarrrik gabe utzi zen adjudikazioa, "kontratu egileak suntsitzeko nahia onartua, arrazoia izanik kontratua formalizatu ez izana"; adjudikazio hartzailea horren kontra azaldu zen 2004ko urtarrilean, eta 185.513 euro eskatu zituen.

Ondotik, laburpen gisa, inbertsioen kapituluko ondorio eta gomendio aipagarrienak azalduko ditugu:

- *Administrazio-kontratazioari buruzko araudia zorrozki betetzea, batez ere kontratazio-espeditentek adjudikatu eta betetzeari dagozkien alderdi formaletan.*

- *Legezko mugak, adjudikatzeko prozedura negoziatua, iragarrita nahiz ez, gaitzen dituztenak, errespetatzea; gutxienez hiru eskaintza beharko dira bigarren kasuan, eta inbertsio txikietatik bereizi, azken hauetan ez baita prozedurarik behar eta aski da faktura. Muga horiek ez dira errespetatu zenbait inbertsiotan, hala nola "seinaleak erostea" edo "Merced plazako obra" delakoan egin beharreko jarduketak.*

## V.3. BESTELAKO KUDEAKETA-GOMENDIO-AK

Ondotik, kudeaketaren arlo aipagarrien arabera sailkaturik, Ganberaren iritziz udalak bere antolamendu-sistemak, prozedurak, kontabilitatea eta barne kontrola hobetzeko hartu beharko lituzkeen neurriei buruzko gomendio nagusiak emango ditugu.

### V.3.1. Antolaketa orokorra

- *Oinarrizko kudeaketa-prozedurak idatziz jartzeta, eta exekuzio-fase bakoitzerako arduradunak identifikatu eta esleitzea.*

- *Udalak erakunde autonomoaren gainean kontrola, kontu-hartze eta babesa betetzen dituela bermatzeko prozedurak diseinatzea.*

### V.3.2. Inbentarioa-ibilgetua

- Udal ondasunak –bai jabetza publikokoak, bai ondarekoak eta herri-ondasunak ere– eskrituratan jasotzeko eta erregistratzeko prozesua osatu behar da.

- 1991ko udal inbentarioa gaurkotu eta onestea, eta altak eta bajak kontrolatzeko eta jarraitze-ko sistema bat ezartzea, hura etengabe gaurkotzea eta kontabilitateko ibilgetuarekin lotuta egotea ziurtatu eta erraztuko duena.

- Altak eta bajak kontabilizatzeko eta ibilgetuko dokumentazioa artxibatze-ko prozedurak definitu eta ezartzea, kontu horiei aplikatzekoak diren kontabilitate-irizpideei jarraituz.

### V.3.3. Langileak

- Erakunde autonomoko langile bakoitzak bere administrazio espedienteak izan behar du, lanbide harremanaren eta gorabehera pertsonalen egin-tza eta dokumentu esanguratsuak jasotzeko. Eten-gabe gaurkotu behar da.

- Udalaren eta haren erakunde autonomoaren organigrama bat prestatu behar da.

- Nominen gainean aldizka egiten diren egiaz-tapenak jasotzeko aukera ematen duen prozedura bat diseinatzea.

- Araudiak ezarritako datetan onetsi eta argita-ratu behar da plantilla organikoa.

- Udaleko langileek aparteko orduak eginez gero Langileen Estatutuan ezarritako gehienekoa errespetatu behar da.

### V.3.4. Transferentziak

- Emandako dirulaguntzak aztertze-ko prozedu-rak prestatzea, sistematikoki bide eman dezaten egoki eman eta helbururako aplikatzen direla ziur-tatzeko, herriko elkarte-ko dirulaguntzak emateko udalak eginiko erregelamenduan ezarritak dauden betebeharrekin bat.

- Udalak azken urteotan bertako enpresen jar-duera industrialak sustatzeko gauzatu duen politika dela eta, gure gomendioa da legeria indardunaren barruan egitea, eta egoera erregularizatzea.

- Gure gomendioa da deskribaturiko egoera hori erregularizatzea, araudi indardunarekin bat eta bidezkoak diren tributu likidazioak egitea.

### V.3.5. Tributu eta ondare bidezko dirusarre-rak, tasak eta prezio publikoak

- Dirusarreraren errolden gainean egiaztapenak egin eta jasotzeko eta beste kontabilitate erregis-

tro batzuekin alderatzeko aukera ematen duten prozedurak taxutu eta ezartzea.

- Erroldak eta haien aldaketak onestea haien kobrantza baino lehenago.

- Tasa eta prezio publikoen bitartez ordaintzen diren kostuei buruzko azterlanak aldizka gaurkotu behar dira.

### V.3.6. Diruzaintza

- Funtsak erabiltze-ko baimendutako sinaduren zerrendak egunean jartzea, hala eskatzen duten bankuko kontuen kasuan.

- Aktan ezartzea egiten diren kutzako kontake-tak eta idatziz jasotzea egindako banku berdinka-tzeak.

### V.3.7. Alderdi orokorrak.

- Sortzapenaren printzipioa zorrotasunez aplikatzea.

- Legediak ezarritako epeetan egin eta ones-tea aurrekontuak, kudeaketarako oinarritzko lana-besa izan daitezzen.

- Aurrekontuko aldaketen espedienteak behar bezala bete, horien berri idatziz eman eta NAOn argitaratzea den-denak.

## VI. GORABEHERAK

Operazioa balantzean egokiro islatu bada ere, udalak ez du deklaratu 2002ko ekitaldian libratu zituen eta kobratu gabe dauden urbanizazio kuota batzuen BEZa. Udalaren zorduna lehiaketa prozedura batean dago sarturik gaur egun. Horrek bete-behar bat dakar, 2003ko ekitaldia ixtean 69.772 euro egiten zituena, eta azken lau ekitaldietako ikuskapen fiskal baten mende egon daitekeena.

Ekitaldia ixtean udala administrazioarekiko auzi batzuetan sarturik dago, eta guztien zenbatespen ekonomikoa egiterik ez dago prozesuaren une honetan. Ebaluatoriko erreklamazio esanguratsue-nek 76.346 euro egiten dute, eta horiei gehitu behar zaie kalte-ordainaren erreklamazio hori, lehen aipatu duguna, igerileku estaliaren obra kontratua suntsitzearen ondorioz. Auzi horiek direla-eta pasiboak sortzen dira, edo sor daitezke, uda-lak horniturik ez dauzkana 2003ko abenduaren 31n.

Auditore Francisco José Etayo Salazar jauna izan da lan honen arduraduna, eta hark proposa-tuta eman da txosten hau, indarreko araudiak eza-rritako izapideak bete eta gero.

Iruñean, 2005eko otsailaren 11n

Lehendakaria: Luis Muñoz Garde

<b>HARPIDETZAREN PREZIOA</b> <b>ALDIZKARI OFIZIALA ETA BILKURA EGUNKARIA</b>	<b>IDAZKARITZA ETA ADMINISTRAZIOA</b> <b>NAFARROAKO PARLAMENTUA</b> «Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofiziala» Navas de Tolosa, 1 31002 IRUÑA
Urtebete ..... 42,35 euro	
Aldizkari Ofizialaren prezioa, aleko ..... 1,10 »	
Bilkura Egunkariaren prezioa, aleko ..... 1,27 »	